

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

581

AGINDUA, 2025eko otsailaren 3koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako laguntzako langileen talde profesionaleko karrerako funtzionario izendatzen baitira Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 6ko aginduaren bidez deitutako enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako pertsonak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 6ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesu baten oinarriak iragarri eta onartu ziren laguntzako langileen talde profesionaleko mandatarien bost lanpostu betetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioak).

IVAPeko zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 28ko Ebazpenean prozesu horretan behin betiko hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Behin betiko hautatutako pertsona guztiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu denez, karrerako funtzionario izendatu behar dira.

Gainera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, funtzionario sartu berriei esleitutako destinoak, zer hornikuntza-sistema erreserbatu zaien, bada sistema horrekin lortu direla joko da ondorio guztietarako.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.r) artikuluan jasotako ahalmenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko eta haren organismo autonomoetako laguntzako langileen talde profesionaleko karrerako funtzionario izendatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 6ko aginduaren bidez deitutako enplegu publikoan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako pertsonak (agindu honen I. eranskinean dago pertsona horien zerrenda).

Bigarrena.– Izendatutako pertsonak 2025eko otsailaren 11n jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionario izateko eskubide guztiak, deialditik eratorriak, hain zuzen.

Hirugarrena.– Karrerako funtzionario sartu berriak behin betiko atxikiko zaizkie esleitutako lanpostuei, eta atxikipen hori esleitutako lanpostua betetzeko erabili den sistemaren bidez lortutakotzat hartuko da ondorio guztietarako.

Laugarrena.– Karrerako funtzionario izendatzeko eta lanpostuaz jabetzeko datuek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendutik eta

abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako babesari izango dute. Datuen babesari buruzko informazioa agindu honen II. eranskinean dago.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

2025eko otsailaren 6a, osteguna

I. ERANSKINA

NAN	Deiturak eta izena	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Saila/Organismoa
***5687**	GONZALEZ GIJON, PABLO	530010	82	MANDATARIA-MENDEKOA	LEHENDAKARITZA
***5390**	MARTINEZ DE APELLANIZ LOPEZ DE URALDE, MIREN IRUNE	530010	83	MANDATARIA-MENDEKOA	HEZKUNTZA
***5768**	RUA HUERTAS, KEVIN	530010	84	MANDATARIA-MENDEKOA	OSASUNA
***8683**	ITURBE ZABALA, NAROA	530010	85	MANDATARIA-MENDEKOA	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
***4256**	JAUREGUI URIBE-ECHEVERRIA, JON	530010	86	MANDATARIA-MENDEKOA	LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

II. ERANSKINA

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Tratamendu-jarduera:

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: **Giza baliabideak**.

- **Arduraduna:** Enplegu Publikoko Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila.
- **Helburua:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen langile funtzionarioen eta lan-kontratudunen eskubide indibidualak kudeatzea: emandako zerbitzuak, antzintasuna, maila, ezintasunak, aparteko hobariak, bateragarritasunak, egoera administratiboak, jarduneko zerbitzura itzultzeak, atxikpenak eta erretiroak. Aldi baterako langileen eta langile kargu-publikodunen izendapenak eta kargu-uzteak kudeatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen langile funtzionarioen, langile lan-kontratudunen eta aldi baterako langileen lanpostuen zerrendak kudeatzea, lanpostuen azterketa egitea eta antolamendu-atalen diagnosis egitea. Curriculum-erregistroa kudeatzea, egiaztagiria ematea eta langileen espedienteen Bulegoaren Artxiboa kudeatzea.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da kontratu bat egikaritzeko, zeinean interesduna parte baita, edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
 - Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
 - Organo judizialak
 - Sindikatuak eta langile-batzordeak
 - Kontu-auzitegia edo erkidegoko baliokidea
 - Aldi baterako langileen eta goi-kargudunen izendapenak eta kargu-uzteak eta langile kargu-publikodunak kontratatze iragarkiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen dira.
- **Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita informazio gehigarri jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/128000-capa2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)